

Liburua izango da protagonista Arkupen, apirilean

Gaurtik hilabetea bukatu bitartean Gabriel Garcia Marquez idazlearen Cien años de soledad obrari eskainitako erakusketa izango da Arkupen. Pablo Torrecilla ilustratzaileak (Madril, 1967) obra horren gaineko hausnarketa egin eta omenalditxo eskaini gura izan dio ilustrazio bidez. Buendia familian oinarri duten marrazki horiek El libro de las hojas muertas liburuan jasota ditu madrildarrak -200 ilustrazio baino gehiago zuri beltzean eta koloretan-, eta gaurtik aurrera gurean ere ikusgai daude 30 marrazki baino gehiago.

Kirmen Uribe martitzenean

Bihar, Haur Liburuaren Nazioarteko Egunean, Alberto Bargas kontalariak Liburu bat, horixe altxorra! eskainiko die 5 urtetik aurrerako neska-mutikoei, liburutegian (11:30). Liburu bat abenturaz betetako altxorra dela jakinaraziko die irakurle txikiei.

Eta helduek Kirmen Uribe poeta eta idazle ondarroarraren bisita izango dute martitzenean, hilak 5, Zaraia aretoan (19:00). Arima baino ederragoa ekitaldia eskainiko du, Bilbo-New York-Bilbo eleberriaren hainbat testuren irakurketa saioa.

Bestalde, hainbat film izango dira Zaraia aretoan. Gaur esaterako, Malko Gorriak ikus-entzunezkoa emango dute (19:00). Intxorta 1937 Kultur Elkartek eginda gerra zibila gurean zelan bizi izan zuten erakusten du: Bedoñako bizilagun baten atxilotzea, frankisten eraso Untzilla aldean...